

EUSKARA SUSTATU, ZABALDU EDO NORMALIZATZEKO EGITEN DIREN JARDUERETARAKO DIRULAGUNTZAK, 2018

EUSKERA ETA KULTURA SAILA

XEDEA

Udal, udal erakunde lokabe eta mankomunitateei diru-laguntzak zelan emango zaizkien araupetzea, euskara Bizkaiko Lurralde Historikoko tokian tokiko arloan sustatzeko, zabaltzeko edo normalizatzeko.

* Diru-laguntza horiek emango dira lehiaketa jardunbideari jarraituz, horretarako eratuko den epaimahai kalifikatzaile baten bitartez.

* Diru-laguntza eskabidearen gai diren proiektuak 2018ko ekitaldiaren barruan burutu behar izango dira.

* Diru-laguntzak bateratu ahal izango dira beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin, estatuko nahiz Europar Batasuneko beste edozein administrazio edo entitate publiko zein pribatuk edota nazioarteko erakundeek helburu berarekin emandakoak badira.

ONURADUNAK

Bizkaiko Lurralde Historikoko udal, udal erakunde lokabe eta mankomunitateak izan daitezke foru dekretu honetan araupetutako diru-laguntzen onuradun.

DIRUZ LAGUNDUKO DIREN EKINTZAK

Euskararen erabilera sustatzen duten egitarau eta jarduerak, baldin eta horien jasotzaileak toki arloko kultur elkarte eta mugimenduak badira, edo kiroletakoak, edo aisia eta astialdikoak; arreta berezia egingo zaie ume eta gazteei.

Euskararen sustapenari begira estrategikotzat jotzen diren toki eremuko herritarren talde berezituen artean euskararen erabilera suspertzen duten egitarau eta jarduerak, bai eta ikuspegi horretatik bereziki jorratu nahi diren arlo zehatz batzuetara zuzendutakoak ere.

Euskararen erabilera tokian tokiko eremuko auzokoen artean suspertzera jotzen duten egitarauak, teknologia berrien eretzean.

Etorकिन euskara-gaitasuna lantzeraz jotzen duten egitarauak.e) Euskararen

erabilera suspertzeko jardueren egitarauak, Bizkaiko Lurralde Historikoko udal, udal erakunde autonomo eta mankomunitateek sustatu eta garatzen dituztenak, baldin eta horiek interes berezikotzat hartu ahal baditu Euskara Zuzendaritza Nagusiak.

Tokian tokiko euskararen ondarea jaso, zaindu eta berreskuratu nahi duten egitarauak, ondare hori gizartearen barruan erabili ahal izateko (kantuak, bertsoak, euskalkiak etab.). Egitarauok aintzat hartzeko, nahitaezkoa izango da horiek guztiek izatea Euskaltzaindiaren edo Labayru Ikastegiaren onirizpena, eskatzaileek eurek ekarri beharrekoa.

Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) egin eta ezartzeko egitarauak, betiere, egitarauok egon behar zaizkio erakunde eskatzailearen lurralde eremuari; izan ere, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Gobernu Kontseiluak onetsi zuen plan hori erabaki baten bidez 2012ko uztailaren 24an.

EPEA

Eskabideak aurkezteko epea 2018ko urtarrilaren 2an hasiko da eta urte bereko urtarrilaren 31an amaituko da.

Tokia: Euskara Sustatzeko Zerbitzuaren bulegoetan aurkez daitezke, Bilboko Rekalde zumarkaleko 30eko 5.ean (astelehenetik ostiralera, 8:30etik 13:30era), edo Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikulua zehazten duen moduan.

ENTREGATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Eskabideak I – E 1 eranskinean jaso den eredu ofizialaren arabera aurkeztu beharko dira, hurrengo zenbakietan eskatutako agiriekin batera, legezko ordezkariak sinatuta

- a) Pertsona juridikoaren legezko ordezkariaren NANaren fotokopia.
- b) Erakunde eskatzailearen IFZren fotokopia.
- c) Banku-helbideraketaren fitxa (IV – E5 eranskina).
- d) Programatutako jardueraren proiektu xehatua. Honako hau zehaztu behar du, gutxienez:
 - 1) Proiektuaren deskripzioa.
 - 2) Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren edo Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren (ESEP) zer helburu lortu nahi diren, bakarrik erakunde hauen kasuan: Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia edo Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) garatzeko urte anitzeko plan estrategikorik onartuta ez duten erakundeen kasuan.
 - 3) Zer baliabide ekonomiko dauden proiektua garatzeko: sarreraren eta gastuen aurrekontu zehatua, erakundeak proiektua garatzeko zer finantza-baliabide dituen zehaztuta. Horretarako, I – E 1 inprimakiko datuak bete beharko dira.
- e) Foru dekretu honen 9. oinarriaren 1.b) irizpidea dela-eta lehentasunezko

balorazioa nahi duten erakundeen kasuan, erakunde eskatzaile bakoitzak ondoren aipatzen diren agirien ale bana aurkeztu beharko du, laguntza zenbat proiektutarako eskatzen den aintzat hartu gabe:

1) Foru dekretu hau argitaratzen den egunean erakundeak Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia edo Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) garatzeko urte anitzeko plan estrategikoa onartuta duela egiaztatzen duen agiria. Ziurtagiri honen ordez, Eusko Jaurlaritzaren egiaztatzea onartuko da.

2) Foru dekretu hau argitaratzen den egunean Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia garatzeko urte anitzeko plan estrategikoari dagokion 2018ko kudeaketa-plana onartuta dagoela egiaztatzen duen agiria; haren ordez, Eusko Jaurlaritzaren egiaztatzea onartuko da.

f) 1. oinarriaren 1 zenbakiko d) letran aipatutako kasuetan, Euskaltzaindiaren edo Labayru Institutuaren txostena.

g) Proiektua zein taldetan sartzen den (A, B, C, D, E). h) Aurrekontua: toki-erakundeak 2017an euskarako biztanleko erabili duen aurrekontua

ARAUDIA

[Bizkaiko Foru Aldundiaren 157/2017 FORU DEKRETUA, abenduaren 19koa. Honen bidez, oinarri-arauak eta deialdia onartzen dira, 2018ko ekitaldian euskararen erabilera sustatu, zabaldu edo normalizatzeko jarduerak egiten dituzten udalei, udal erakunde autonomoei eta mankomunitateei diru-laguntzak emateko\(2017/12/27ko BAO\).](#)